



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

Unai Rementeriak gaur hartu du Bizkaiko Garraio Partzuergoaren presidentziaren kargua

- **Basauriko alkatea, Andoni Busquet, Partzuergoko presidente orde aukeratu da.**

Bilbo, 2015eko urriaren 27a

Ahaldun Nagusia, Unai Rementeria, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) lehenengo Kontseilu Nagusiko buru izan da gaur goizean, Bilbon. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak bera izendatu du Partzuergoko presidente, irailaren 22ko 179/2015 Dekretuaren bidez. Bilera Bilbon egin da, eta bertan, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiko eta udaletako ordezkariak dagozkien karguak hartu dituzte Bizkaiko garraio publikoa koordinatzen duen erakundeko erabaki-organo horretan, maiatzean egin diren foru eta udal hauteskundeen ostean.

Unai Rementeriak José Luis Bilbao ordezkatu du BGPren Kontseiluan eta Batzorde Betearazlean, presidente moduan. Kontseiluak guztira 26 kide ditu (13 Eusko Jaurlaritzakoak, 2 Bizkaiko Foru Aldundikoak eta 11 metroaren ibilbidea igarotzen den udaletakoak); baina beste aldaketa batzuk ere egin dira gaur. Aldundiaren ordezkari gisa, Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko diputatu Vicente Reyes da kontseilukide berria.

Udalerrietako ordezkari gisa, honako kide berriak daude Kontseiluan: Bilboko alkatea, Juan María Aburto, eta Zirkulazio eta Ingurumeneko zinegotzia, Alfonso Gil. Biek parte hartzen dute Bizkaiko hiriburuaren ordezkari moduan. Eta horiekin batera daude: Barakaldoko alkatea, Amaia del Campo; Getxoko alkatea, Imanol Landa; Portugaleteko alkatea, Mikel Torres; Sestaoko alkatea, Josu Bergara; Basauriko alkatea, Andoni Busquet, gaur bertan presidente orde ere izendatu dena; Erandioko alkatea, Joseba Goikouria; Etxebarriko alkatea, Loren Oliva; eta Luis Angel Urdiales eta Alfonso López, Santurtziko eta Leioako ordezkariak, hurrenez hurren.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bi kargu-uzte eta izendapenen berri eman du Kontseiluan. ETSko zuzendari nagusi José Luis Sabas jaunak, gaurtik aurrera Rafael Sarria ordezkatu du. Gainera, Alexander Boto jaunak Amaia Barredo ordezkatu du Jaurlaritzaren ordezkari gisa.

Bizkaiko Garraio Partzuergoa (CTB) nortasun juridiko propioa eta independentea duen erakundea da; Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzen dute, % 50ean. BGPren zereginak dira, metroaren eraikitze-lanak finantzatzea (1 eta 2 lineak), lan horien zati bat lizitatzea eta gauzatzea -Gainegitura-, oraingo trenbide sarean hobekuntzak egitea, lurraldeko garraio publikoa koordinatzeko politikak proposatzea.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Zeregin horiek arlo desberdinetan gauzatzen ditu: azpiegitura integratzaileak eta modu anitzekoak eraiki (aldageltokiak, aldirietako aparkalekuak...), erakunde arteko akordioak egin tarifen gaineko politikari lotuta, eta teknologia berriak erabili garraioaren alderdi guztiak koordinatuta eta berrantolatuta egoteko helburua lortze aldera (kontakturik gabeko Barik txartela).

GAUR HARTU DIREN ERABAKIAK: URBINAGAKO SARBIDEA, ETA AHOLKU-ZERBITZUA KANTABRIAN KONTAKTURIK GABEKO TXARTELA EZARTZEKO

Kontseiluko kide berriek dagoeneko hartu dituzte lehenengo erabakiak. BGPn erabakiak hartzen dituen goren organoak hartu duen erabaki garrantzitsua haxe da: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Galindoko araztegirako sarbide berria erabiltzeko eta mantentzeko hitzarmen arautzailea onartu du. Sarbide hori Metro Bilbaoren Urbinagako geltokian egin da. Sarbide horri esker, laster tratamendutegiko langileak eta kanpoko bisitak ere sartu ahal izango dira. Izan ere, sarbidea Ur Partzuergoari lagako zaio, ustia dezan. Besteak beste, honako instalazioak ditu: ixteko elementuak, eskailera kiribila automatikoki kontrolatzen den atearekin, igogailua eta txartelak balioztatze makinak.

Halaber, BGPK lankidetza akordio berria egin du Centro Tecnológico en Logística Integral de Cantabria (CTL) fundazioarekin. Horren arabera, Kantabriako garraio publikoan kontakturik gabeko txartela ezartzeko aholkuak emango zaizkie. Barik txartelaren antzekoa jarriko dute, CTLko arduradunen esanetan, berau eredu “egokia” delako Kantabriako ticketing sistema garatzeko.